



## **1. ERANSKINA- FEDERATUENTZAKO INFORMAZIOA** (Federatu bakoitzak informazio honen kopia bat jaso behar du)

### **IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEARI BURUZKO LEGE JAKINARAZPENA**

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoak, ezarritakoaren arabera, jakinarazten dizugu inprimakien edo euskarri informatikoaren bidez erregistratutako datuak Federazioaren lizentziarekin lotutako zerbitzuak eskaintzeko erabiliko direla soilik, eta **Euskal Mendi Federazioaren** jabetzako fitxategi informatiko batean gordeko direla; fitxategi hori Datuak Babesteko Agentzian inskribatuta dago. Era berean, Federazioaren araudian ezarritakoa betetzeko, lurralde federazioek eta elkarteek Euskal Mendi Federazioak lizentzia egiteko behar duen dokumentazioa izapidetuko dute soilik, lege trataera egokia emango diote, eta datu horiek eman ziren xederako erabiliko dira soilik.

Datuen titularrek eskubidea izango dute datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, kentzeko, ezerezteko edo horien aurka egiteko, eta Euskal Mendi Federazioa igorri beharko dute ekintza horiek egiteko eskabidea (Errotaburu pasealekua, 1 -9.a – Donostia, Gipuzkoa). Eskabide horretan ondorengo datu hauek jaso behar dituzte: interesatuaren izen-abizenak, jakinarazpenak igortzeko helbidea eta NANaren edo pasaportearen fotokopia. Eskatera ordezkoren baten bitartez eginez gero, horren agiri fede-emaila aurkeztu behar da. Eskatutako datuak nahitaezkoak dira zehaztutako helburua betetzeko. Zure datuak horrela erabiltzea nahi ez duzula adierazi ezean, erabilera hori onartu egiten duzula ulertuko da, bai eta aipatutako erakundeen esku uzten dituzula ere.